

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

Auditoretza-txostena
2024ko abenduaren 31ko urteko kontuak
Kudeaketa-txostena



Urteko kontuen auditoretza-txostena auditore independente batek egina

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión funtsaren partaideei, Kutxabank Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A. ren akziodun bakarraren enkarguz (pertsona bakarrek sozietatea) (sozietate kudeatzailea):

Iritzia

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión (Funtsa) urteko kontuak auditatu ditugu. Kontu horietan sartzen dira 2024ko abenduaren 31ko balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren aldaketan egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoria.

Gure ustez, erantsitako urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan, Funtsaren ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela adierazten dute 2024ko abenduaren 31n, baita data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion emaitzen fidela ere, aplikatzekoa den finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorritik (memoriaren 2. oharrean identifikatzen da), eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipioekin eta -irizpideekin bat etorritik.

Iritziaren oinarria

Espanian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren jardura erregulatzen duen araudiarekin bat etorritik egin dugu gure auditoretza. Arau horien arabera ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatuko ditugu gure txosteneko atal honetan: *Kontu-ikuskariaren erantzukizunak, urteko kontuen auditoretzari dagokionez.*

Funtsarekiko independenteak gara etika-eskakizunen arabera, independentzia-eskakizunak barne, Espainiako urteko kontuen gure auditoretzari aplikatzekoak direnak, kontu-auditoretzaren jardura arautzen duen araudiak eskatzen duenaren arabera. Ildo horretan, ez dugu kontu-auditoretzaz bestelako zerbitzurik eman, eta ez da gertatu, aipatutako araudi arautzailean ezarritakoaren arabera, izan beharreko independentziari eragin dion egoerarik edo inguruabarrik, hura arriskuan jartzeko modukorik.

Gure ustez lortu dugun auditoretza-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du gure iritzia emateko.

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak izaten dira, gure irizpide profesionalaren arabera, uneko epealdiaren urteko kontuei buruzko gure auditoretzan akats material arriskutsu nagusitzat jotzen ditugunak. Arrisku horiek urteko kontuen auditoretzaren testuinguruan landu dira, baita kontu horiei buruzko gure iritzia eratzeko ere, eta ez dugu arrisku horiei buruzko iritzirik ematen.

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak**Auditoretzan zer modutan tratatu diren****Inbertsio finantzarioen zorroaren balorazioa**

Indarrean dagoen legediaren arabera, Inbertsio Kolektiboko Erakundeek xede soziala da publikoaren funts, ondasun edo eskubideak atzematea ondasun, eskubide, balore edo bestelako tresnetan, finantzarioak izan ala ez, kudeatzeko edo inbertitzeko, betiere inbertitzailearen errendimendua emaitza kolektiboen arabera ezartzen bada.

Aurrez deskribatutako jardueraren arabera, Funtsaren Ondare Garbia tresna finantzarioetan dago inbertituta nagusiki. Funtsaren inbertsio finantzarioen zorroari aplikatu beharreko kontabilitate-politika urteko kontuen memoriaren 3. oharrean dago deskribatuta eta bertako 6. oharrean zehaztu da 2024ko abenduaren 31n zegoen inbertsio finantzarioen zorroa.

Arlo hau Funtsaren auditoretzan funtsezkoena den alderdi gisa identifikatu dugu inbertsio finantzarioen zorroaren balorazioak bere Ondare Garbiaren eguneroko kalkuluan eta, beraz, bere likidazio-balioan duen eraginarengatik.

Funtsaren kudeaketa Kutxabank Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A.k egiten du zeinak Sozietate kudeatzaile gisa jarduten duen. Sozietate kudeatzaileak Funtsaren zorroaren arrazoizko balioa zehazteko erabilitako prozedurak eta irizpideak ulertzea lortu dugu.

Gainera, Funtsaren zorroaren gain prozedurak egin ditugu, horien artean hauek nabarmentzen dira:

Zorroko tituluen Erakunde gordailuzainaren berrespenak lortzea

Erakunde gordailuzainari eskatu genion 2024ko abenduaren 31n Funtsaren zorroan jasotako tresna finantzario guztiak daudela berrestea, eta ez dugu salbuespenik edo alde esanguratsurik aurkitu Erakunde gordailuzainarengandik jasotako erantzunaren eta sozietate kudeatzaileak emandako Funtsaren kontabilitate-erregistroen artean.

Inbertsio finantzarioen zorroaren balorazioa

2024ko abenduaren 31n Funtsaren zorroan zeuden tresna finantzarioen balorazioa egiaztatu dugu Sozietate kudeatzaileak egindako kalkuluak berriz eginez eta, horretarako, analisiaren egunean merkatuan zegoen balore fidagarrienak erabili dira.

Aurrez deskribatutako probetan ez da alderik identifikatu, arrazoizko tartetik kanpo.

Bestelako kontuak

2024ko martxoaren 26an, beste auditore batzuek 2023ko ekitaldiko urteko kontuei buruzko auditoretza-txostena jaulki zuten eta, bertan, aldeko iritzia eman zuten.

Bestelako informazioa: Kudeaketa-txostena

Beste informazioak 2024ko ekitaldiko kudeaketa-txostena baino ez du hartzen; txosten hori egitea Sozietate kudeatzailearen administratzaileen erantzukizuna da, eta ez da urteko kontuen parte.

Urteko kontuei buruz dugun auditoretza-irritziak ez du kudeaketa-txostena hartzen. Kudeaketa-txostenari buruz dugun erantzukizuna, kontu-auditoretzaren jardura arautzen duen araudiak eskatzen duenaren arabera, kudeaketa-txostena urteko kontuekin bat datorren ebaluatzean eta informatzean datza, aipatutako kontuen auditoretza egitean Funtsetik lortutako ezagutzatik abiatuta, baita kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena aplikatzekoa den araudiarekin bat datozen

ebaluatzean eta informatzean ere. Egindako lanean oinarrituta, akats materialak daudela ondorioztatzen badugu, horren berri ematera behartuta gaude.

Egindako lana oinarri hartuta, aurreko paragrafoan deskribatutakoaren arabera, kudeaketa-txostenak duen informazioa bat dator 2024ko ekitaldiko urteko kontuekin, eta haren edukia eta aurkezpena bat datoz aplikatu beharreko araudiarekin.

Sozietate kudeatzailearen administratzaileen erantzukizuna, urteko kontuei dagokienez

Sozietate kudeatzailearen administratzaileak arduratzen dira erantsitako urteko kontuak formulatzeaz, ondarearen, finantza-egoeraren eta Funtzaren emaitzen irudi fidela adieraziz, Espainiako erakundeari aplikatu beharreko finantza-informazioaren arau-esparruarekin bat etorriz, baita iruzurrik edo akatsik gabe urteko kontuak prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolarekin ere.

Urteko kontuak prestatzerakoan, Sozietateko kudeatzailearen administratzaileak arduratzen dira Funtzak funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko duen gaitasuna baloratzeaz, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen enpresarekin zerikusia duten gaiak azalduz, eta funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz, salbu eta Funtzaren Sozietate Kudeatzailearen administratzaileek Funtza likidatzeko edo eragiketak eteteko asmoa badute, edo beste aukera errealistatik ez badago.

Auditorearen erantzukizunak urteko kontuen auditoretzari dagokionez

Gure helburua da urteko kontuak, oro har, oker materialik gabe daudela ziurtatzea, iruzurraren edo akatsen ondorioz, eta gure iritzia jasotzen duen auditoretza-txostena egitea.

Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila handia da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren jarduera arautzen duen araudiarekin bat etorriz egindako auditoretza batek beti atzemango duenik akats material bat, halakorik dagoenean. Akatsak iruzurraren edo errorearen ondorio izan daitezke, eta materializat hartzen dira, baldin eta, banaka edo modu agregatuan, erabiltzaileek urteko kontuetan oinarrituta hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragina izatea era arrazoituan aurreikus badaiteke.

Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren jarduera arautzen duen araudiaren arabera auditoretza baten parte gisa, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionalaren jarrera mantentzen dugu auditoretza osoan zehar. Halaber:

- Urteko kontuetan oker materialaren arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, iruzurraren edo akatsen ondorioz, arrisku horiei erantzuteko auditoria-prozedurak diseinatu eta aplikatzen ditugu, eta gure iritzirako oinarri bat emateko nahikoa eta egokia den auditoria-ebidentzia lortzen dugu. Iruzurraren ondoriozko akats material bat ez detektatzeko arriskua handiagoa da akatsen ondoriozko akats material baten kasuan baino; izan ere, iruzurrak kolusioa, faltsifikazioa, nahita egindako omisioak, nahita egindako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea ekar dezake.
- Auditoretzarako barne-kontrolaren ezagutza garrantzitsua lortzen dugu, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko, eta ez erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko.
- Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren, kontabilitate-zenbatespenen arrazoizkotasuna eta Sozietate kudeatzailearen administratzaileek emandako informazioa ebaluatuko ditugu.
- Sozietate kudeatzaileko administratzaileek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa era egokian erabiltzen duten ondorioztatzen dugu, eta, lortutako auditoretzaren

ebidentzian oinarrituta, ondorioztatzen dugu Funtzak funtzionamenduan dagoen enpresa gisa jarraitzeko duen gaitasunari buruz zalantza esanguratsuak sor ditzaketen gertakariekin edo baldintzekin lotutako ziurgabetasun materialik dagoen ala ez. Ziurgabetasun materiala dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoretza-txostenean ohartarazi behar dugu urteko kontuetan emandako informazio horri buruz, edo, jakinarazte horiek egokiak ez badira, iritzi aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak orain arte gure auditoretza-txostenetik lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko egitateek edo baldintzek eragin dezakete Funtsa funtzionamenduan dagoen enpresa izateari uztea.

- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, baita jakinarazitako informazioa ere, eta ea urteko kontuek transakzioak eta azpiko gertaerak irudikatzen dituzten, irudi fidela adierazteko moduan.

Sozietate kudeatzailearen administratzaileekin komunikatzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoretzaren norainokoa eta unea, auditoretzaren aurkikuntza esanguratsuak eta auditoretzan zehar identifikatzen dugun barne-kontrolaren edozein hutsune esanguratsu direla-eta.

Sozietate kudeatzailearen administratzaileei jakinarazi zaizkien arrisku garrantzitsuen artean, egungo aldiko urteko kontuen auditoretzan esanguratsuenak izan direnak zehaztu ditugu, eta, ondorioz, arrisku garrantzitsuentzat jo dira.

Arrisku horiek gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, salbu eta lege- edo erregelamenduxedapenek gaia jendaurrean azaltzea debekatzen badute.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L. (S0242)

Guillermo Cavia González (20552)

2025eko apirilaren 24a

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31ko balantzea (eurotan adierazita)

AKTIBOAK	2024	2023 (*)
Aktibo ez-korrontea	-	-
Ibilgetu ukiezina	-	-
Ibilgetu materiala	-	-
Erabilera propioko ondasun higiezinak	-	-
Altzariak eta tresnak	-	-
Aktiboak zerga geroratuarengatik	-	-
Aktibo korrontea	27 000 708,13	26 848 586,78
Zordunak	-	-
Inbertsio finantzarioen zorroa	26 652 965,09	26 461 352,96
Barneko zorroa	26 235 480,12	26 105 900,60
Zorraren balore adierazgarriak	26 235 480,12	26 105 900,60
Ondare-tresnak	-	-
Inbertsio kolektiboko erakundeak	-	-
Gordailuak kreditu-erakundeetan	-	-
Deribatuak	-	-
Bestelakoak	-	-
Kanpoko zorroa	-	-
Zorraren balore adierazgarriak	-	-
Ondare-tresnak	-	-
Inbertsio kolektiboko erakundeak	-	-
Gordailuak kreditu-erakundeetan	-	-
Deribatuak	-	-
Bestelakoak	-	-
Inbertsio-zorroaren interesak	417 484,97	355 452,36
Inbertsio berankorrek, zalantzazkoak edo auzitan daudenak	-	-
Periodifikatzeak	-	-
Diruzaintza	347 743,04	387 233,82
AKTIBOA, GUZTIRA	27 000 708,13	26 848 586,78

Honekin batera doan memorian deskribatutako 1etik 11ra bitarteko oharra 2024ko abenduaren 31ko balantzearen parte dira.

(*) Konparazioa egiteko aurkezten da soil-soilik.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31ko balantzea (eurotan adierazita)

ONDAREA ETA PASIBOA	2024	2023 (*)
Partaideei edo akziodunei esleitutako ondarea	26 993 733,83	26 842 613,94
Partaideei edo akziodunei esleitutako funts ordaingarriak	26 993 733,83	26 842 613,94
Kapitala	-	-
Partaideak	26 219 916,75	26 138 910,81
Jaulkipen-prima	-	-
Erreserbak	-	-
(Akzio propioak)	-	-
Aurreko ekitaldietako emaitzak	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk	-	-
Ekitaldiko emaitza	773 817,08	703 703,13
(Konturako dibidendua)	-	-
Doikuntzak erabilera propioko ibilgetu materialeko balore-aldaketengatik	-	-
Esleitutako beste ondarea	-	-
Pasibo ez-korrontea	-	-
Epe luzerako hornidurak	-	-
Epe luzerako zorrak	-	-
Pasiboak zerga geroratuarengatik	-	-
Pasibo korrontea	6 974,30	5 972,84
Epe laburrerako hornidurak	-	-
Epe laburrerako zorrak	-	-
Hartzekodunak	6 974,30	5 972,84
Pasibo finantzarioak	-	-
Deribatuak	-	-
Periodifikatzeak	-	-
ONDAREA ETA PASIBOA, GUZTIRA	27 000 708,13	26 848 586,78
OROIPEN-KONTUAK	2024	2023 (*)
Konpromiso-kontuak	-	-
Konpromisoak deribatuen eragiketa luzeengatik	-	-
Konpromisoak deribatuen eragiketa laburrengatik	-	-
Bestelako oroipen-kontuak	28 691 459,63	29 680 312,44
IKEek maileguan lagatako baloreak	-	-
IKEek garantia gisa emandako baloreak	-	-
IKEek garantia gisa jasotako baloreak	-	-
Harpidetu gabeko eta zirkulazioan ez dagoen kapital nominala	-	-
Konpentsatu beharreko galera fiskalak	1 841 459,63	2 230 312,44
Bestelakoak	26 850 000,00	27 450 000,00
OROIPEN-KONTUAK, GUZTIRA	28 691 459,63	29 680 312,44

Honekin batera doan memorian deskribatutako 1etik 11ra bitarteko oharra 2024ko abenduaren 31ko balantzearen parte dira.

(*) Konparazioa egiteko aurkezten da soil-soilik.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko galdu-irabazien kontua (eurotan adierazita)

	2024	2023 (*)
Deskontu-komisioak harpidetzengatik eta/edo errenboltsoengatik	-	-
Inbertsio kolektiboko erakundeari ostera lagatako komisioak	-	-
Langileen gastuak	-	-
Beste ustiapen-gastu batzuk	(36 549,19)	(35 691,79)
Kudeaketa-komisioa	(24 064,47)	(23 891,31)
Gordailuzain-komisioa	(8 022,15)	(7 963,70)
Diru-sarrera/gastua konpartimentu konpentsazioengatik	-	-
Bestelakoak	(4 462,57)	(3 836,78)
Ibilgetu materialaren amortizazioa	-	-
Horniduren soberakinak	-	-
Narriadura eta emaitzak ibilgetuaren besterentzeengatik	-	-
Ustiapen-emaitza	(36 549,19)	(35 691,79)
Diru-sarrera finantzarioak	115 304,77	116 979,49
Gastu finantzarioak	-	-
Arrazoizko balioaren aldakuntza tresna finantzarioetan	696 592,97	623 053,37
Barneko zorroaren eragiketengatik	696 700,66	623 371,37
Kanpoko zorroaren eragiketengatik	-	-
Deribatuekin egindako eragiketengatik	(107,69)	(318,00)
Bestelakoak	-	-
Kanbio-diferentziak	-	-
Narriadura eta emaitzak tresna finantzarioen besterentzeengatik	2 357,06	2 898,26
Narriadurak	-	-
Emaitzak barneko zorroaren eragiketengatik	2 357,06	2 898,26
Emaitzak kanpoko zorroaren eragiketengatik	-	-
Emaitzak deribatuekin egindako eragiketengatik	-	-
Bestelakoak	-	-
Emaitza finantzarioa	814 254,80	742 931,12
Zerga aurreko emaitza	777 705,61	707 239,33
Mozkinen gaineko zerga	(3 888,53)	(3 536,20)
EKITALDIKO EMAITZA	773 817,08	703 703,13

Honekin batera doan memorian deskribatutako 1etik 11ra bitarteko oharra 2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko galdu-irabazien kontuaren parte dira.

(*) Konparazioa egiteko aurkezten da soil-soilik.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orria (eurotan adierazita)

2024ko abenduaren 31n

A) Aitortutako diru-sarrera eta gastuen egoera

Galdu-irabazien kontuaren emaitza	773 817,08
Partaide eta akziodunei esleitutako ondarean zuzenean egotzitako diru-sarrera eta gastuak, guztira	-
Transferentziak, guztira, galdu-irabazien kontura	-
Aitortutako diru-sarrera eta gastuak, guztira	773 817,08

B) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, guztira

	Partaideak	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Ekitaldiko emaitza	Esleitutako beste ondarea	Guztira
2023ko abenduaren 31ko saldoak	26 138 910,81	-	-	703 703,13	-	26 842 613,94
Doikuntzak irizpide-aldaketengatik	-	-	-	-	-	-
Errorengatik egindako doikuntzak	-	-	-	-	-	-
2024ko ekitaldiaren hasieran doitutako saldoak	26 138 910,81	-	-	703 703,13	-	26 842 613,94
Aitortutako diru-sarrera eta gastuak, guztira	-	-	-	773 817,08	-	773 817,08
Ekitaldiko emaitzaren aplikazioa	703 703,13	-	-	(703 703,13)	-	-
Eragiketak partaideekin						
Harpidetzak	-	-	-	-	-	-
Errenboltsoak	(622 697,19)	-	-	-	-	(622 697,19)
Ondarearen bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-
2024ko abenduaren 31ko saldoak	26 219 916,75	-	-	773 817,08	-	26 993 733,83

Honekin batera doan memorian deskribatutako 1etik 11ra bitarteko oharrik 2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orriaren parte dira.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2023ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orria (eurotan adierazita)

2023ko abenduaren 31n (*)

A) Aitortutako diru-sarrera eta gastuen egoera

Galdu-irabazien kontuaren emaitza	703 703,13
Partaide eta akziodunei esleitutako ondarean zuzenean egotzitako diru-sarrera eta gastuak, guztira	-
Transferentziak, guztira, galdu-irabazien kontura	-

Aitortutako diru-sarrera eta gastuak, guztira 703 703,13

B) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, guztira

	Partaideak	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Ekitaldiko emaitza	Esleitutako beste ondarea	Guztira
2022ko abenduaren 31ko saldoak	28 810 457,46	-	-	(2 240 583,95)	-	26 569 873,51
Doikuntzak irizpide-aldaketengatik	-	-	-	-	-	-
Erroneengatik egindako doikuntzak	-	-	-	-	-	-
2023ko ekitaldiaren hasieran doitutako saldoak	28 810 457,46	-	-	(2 240 583,95)	-	26 569 873,51
Aitortutako diru-sarrera eta gastuak, guztira	-	-	-	703 703,13	-	703 703,13
Ekitaldiko emaitzaren aplikazioa	(2 240 583,95)	-	-	2 240 583,95	-	-
Eragiketak partaideekin						
Harpidetzak	-	-	-	-	-	-
Errenboltsoak	(430 962,70)	-	-	-	-	(430 962,70)
Ondarearen bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-
2023ko abenduaren 31ko saldoak(*)	26 138 910,81	-	-	703 703,13	-	26 842 613,94

(*) Konparazioa egiteko aurkezten da soil-soilik.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

1. Jarduera eta arrisku-kudeaketa

a) Jarduera

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión, aurrerantzean Funtsa, Bilbon eratu zen 2019ko apirilaren 10ean. Egoitza soziala Bilbon du, Euskadi Plazako 5. zk.an, 27. solairuan.

Funtsa Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren (CNMV) Inbertsio Funtzen Erregistroan inskribatuta dago 2019ko maiatzaren 10etik, 5364 zenbakiarekin, eta ordutik Fondo de Inversión (F.I.) kontsiderazioa du legearen ondorioetarako.

Azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 1. artikuluen, eta ondorengo aldaketen (aurrerantzean “35/2003 Legea”) arabera, Inbertsio Kolektiboko Erakundeek xede soziala da publikoaren funts, ondasun edo eskubideak atzematea ondasun, eskubide, balora edo bestelako tresnetan, finantzarioak izan ala ez, kudeatzeko edo inbertitzeko, betiere inbertitzailearen errendimendua emaitza kolektiboen arabera ezartzen bada.

Funtsa kudeatzeko, administratzeko eta ordezkatzeko ardura Kutxabank Gestión S.G.I.I.C. SAUri dagokio, aurrerantzean Sozietate Kudeatzailea, eta Kutxabank Taldearen barruan dago. Talde horren sozietate nagusia Kutxabank SA da, eta sozietate horrek formulatzen ditu finantza-egoera kontsolidatuak. Era berean, Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria erakundeak, Bilboko Kale Nagusiko 19-21 zenbakian egoitza soziala duenak, Kutxabank kontrolatzeko ahalmena dauka. Beraz, Kutxabank eta bere mendeko sozietateak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundación Bancaria taldearen parte dira.

Funtsaren erakunde gordailuzaina Cecabank, SA da. Entitate Gordailuzain horrek Funtsa zaindu, gainbegiratu eta administratzeko zenbait funtzio garatu behar ditu, gaur egun indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera.

Inbertsio Funtzen lege-araudi espezifikoaren mende dago Funtsa, uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak (aurrerantzean, 1082/2012 Errege Dekretua) eta 35/2003 Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen hurrengo aldaketek jasotzen dutena. Honako hauek dira Funtsari aplikatzeko den araudi horren alderdi nagusiak:

- Gutxieneko ondarea 3.000.000 eurokoa izango da.
- Funtsaren partaideen kopurua ez da 100dik beherakoa.

Merkatuko baldintzengatik edo indarrean dagoen araudia bete behar izateagatik, funts baten ondarea edo partaideen kopurua, edo bere konpartimentuen kopurua 1082/2012 Errege Dekretuan ezarritako gutxienezko beherakoa badira, erakunde horiek urte bateko epea izango dute, eta epe horretan halakoak bailiran jardun ahal izango dute.

- Funtseko balore higigarriak eta gainerako aktibo finantzarioak ezin dira pignoratu, ez eta inolako garantia gisa eratu ere, salbu Funtsek bigarren mailako deribatuen merkatu ofizialetan egiten dituen eragiketetan garantia gisa balio izateko, eta funtzio hau gauzatzeko legez gaitutako erakundeek zaintzapean egon behar dute.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

- Funtsaren likidezia kudeatzeko, Sozietate Kudeatzaileak inbertitzen duen baloreen merkatuaren sakontasuna kontrolatzeko barne-sistemak izan beharko ditu, ohiko negoziazioa eta inbertitutako bolumena kontuan hartuta, Funtsaren posizioak modu ordenatuan likidatu ahal izateko, kontratazio-mekanismo arrunten bidez. Funtsaren informazio-dokumentuek gai horri buruz hartutako politikari buruzko azalpen bat jaso beharko dute.
- Obligazioen gehieneko ehuneko batzuk ezarri dira hirugarrenen eta inbertsio-kontzentrazioen aldean.
- Funtsa merkatu-arriskuagatik eratorritako tresnei dagokienez muga batzuen mende dago, baita kontrako alderdiaren arriskuagatik muga batzuen mende ere.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, Funtsa ez dago konpartimentuetan banatuta.

Funtsa Kudeatzeko Erregelamenduaren arabera, Sozietate Kudeatzaileak urtean komisio bat kobratuko du kudeaketa-gastuengatik, ondarearen % 2,25etik gorakoa izango ez dena. 2024 eta 2023ko ekitaldietan, kudeaketa-komisioa % 0,09koa izan da.

Era berean, Funtsa Kudeatzeko Erregelamenduak Entitate Gordailuzainaren ordainsaria ere ezartzen du, zaindutako ondarearen % 0,20tik gorakoa izango ez dena urtean. 2024 eta 2023ko ekitaldietan, gordailuzainaren komisioa % 0,03koa izan da bi ekitaldietan.

2024 eta 2023ko abenduaren 31n, Sozietate Kudeatzaileak % 5,00ko komisioa aplikatu die Funtseko partaideei harpidetutako partaidetzen zenbatekoaren gainean eta % 2,00koa errenboltsatutako partaidetzen zenbatekoaren gainean.

2024ko eta 2023ko ekitaldietan, Funtsek ez du sortu Inbertsio Kolektiboko Erakundeetako inbertsioengatik ostera lagatako komisioen eskubiderik.

b) Arriskuaren kudeaketa

Funtsaren inbertsio-politika, baita lotutako arrisku nagusien deskribapena ere, erregistratutako liburuxkan daude zehaztuta eta CNMVren erregistroan eta Sozietate Kudeatzailean dago publikoaren eskura.

Funtsaren merkatu finantzarioetako eragiketei dagokienez, arrisku nagusiak hauek dira:

- Merkatu-arriskua: Funtsek jarduten duen aktibo finantzarioen merkatuko prezioetan mugimendu kaltegarriengatik izan daitezkeen galerak adierazten ditu. Arrisku horien artean, esanguratsuenak Funtsek zorroan dituen tituluen interes-tasak, kanbio motak eta kotizazioak dira.
- Kreditu-arriskua: Funtsa dela eta, kontrako alderdiak dituen betebeharrak finantzarioak betetzeko gaitasunaren edo asmoaren aldaketengatik izan daitezkeen arriskuak dira.
- Likidezia-arriskua: zorroko aktiboak merkatuan egiteko unean zailtasunak izateagatik sortzen da.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

- Eragiketa-arriskua: galerak eragin ditzakeena gizakiaren erroreen, barne-prozesu desegoki edo akastunen, sistemen hutsegiteen edo kanpoko gertaeren ondorioz.
- Jasangarritasun-arriskua: kontuan hartzen da Funtsak ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak sustatzen dituenean, Europar Batasuneko 2019/2088 Erregelamenduaren 8. eta 9. artikuluan jasotakoari jarraiki. Ingurumeneko, gizarteko edo gobernantzako gertaera edo egoera oro da, baldin eta, gertatuz gero, inbertsioaren balioan eragin material negatiboa izan badezake.

Inbertsioen jasangarritasun arriskua, besteak beste, jaulkitzaile motaren, jarduera-sektorearen edo kokapen geografikoaren arabera izango da. Horrela, jasangarritasun-arrisku handiagoa duten inbertsioek azpiko aktiboen prezioa jaitsi dezakete eta, beraz, Funtsaren partaidetzaren likidazio-balioari era negatiboan eragin diezaiokete.

Sozietate Kudeatzaileak behar diren mekanismoak ditu ezarrita merkatu, kreditu eta likideziaren arriskuarekiko esposizioa kontrolatzeko, baita eragiketa-arriskuarekiko esposizioa ere. Alde horretatik, lehen 1.a) apartatuan aipatutako legeak ezarritako koefizienteen kontrolak mugatzen du arrisku horietako batzuekiko esposizioa.

2024ko eta 2023ko ekitaldietan, egoera geopolitikoak eragin handia izan du, hala nola Ukrainako gerrak, Ekialde Ertaineko gatazkek eta gertatu diren hauteskunde-prozesu nagusiek. Izan ere, erabaki politiko posibleen norabidea aldatzea ekar dezakete, bereziki 2025etik aurrera Estatu Batuetako gobernu berriak har ditzakeenak, eta horrek Txinako, Latinoamerikako eta Europako ekonomietan izan lezakeen eragin ekonomikoak, besteak beste, balizko muga-zergen neurriak ezarri gero. Gainera, Estatu Batuetako eta Europako herrialde nagusietako inflazioaren bilakaerak eta Banku Zentralek politika makroekonomikoan hartutako hainbat erabakik asko eragin dute.

Testuinguru honetan, izan daitezkeen ondorioak ebaluatu ondoren, Funtsaren Sozietate Kudeatzaileak uste du Funtsak kaudimen- eta likidezia-maila handiak ditu eta horrek bere negozioarekin sobera jarraitu ahal izango du gaur egungoa bezalako testuinguru batean.

2. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

a) Irudi fidela

Urteko kontuak Funtsaren Sozietate Kudeatzaileko Administrazioak formulatu dituzte, Funtseko kontabilitateko erregistroetatik abiatuta, kontabilitate-gaietan indarrean dauden eta aplikatzekoak diren lege-xedapenak aplikatuta, Funtsak bere egoeraren eta emaitzen irudi fidela eta benetakoa erakusteko xedearekin.

Erantsitako urteko kontuak Sozietate Kudeatzailearen Administrazio Kontseiluak onartu behar ditu, baldin eta Administrazioak uste badute onar daitezkeela aldaketa esanguratsurik gabe.

b) Kontabilitate-printzipioak

Urteko kontu hauek egiteko, CNMVren 3/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldaketetan, funtsean, jasotako kontabilitateko eta sailkatze printzipio eta irizpideak jarraitu dira. Printzipio

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

esanguratsuenak 3. oharrean deskribatu dira. Ez dago obligaziozko kontabilitate-printzipiorik, urteko kontu hauetan ondorio esanguratsua izan dezakeenik, eta aplikatu gabe utzi denik.

c) Konparagarritasuna

2024ko abenduaren 31ko urteko kontuak indarrean dagoen CNMVren araudian ezarritako egitura eta printzipio kontableei jarraituz aurkezten dira.

Sozietate Kudeatzaileko Administratzaileek, konparazioa egin ahal izateko, balantzeko, galdu-irabazien kontuko eta ondare garbiaren aldaketen egoera-orriko partida bakoitzarekin batera, 2024ko ekitaldiko zifrez gain, aurreko ekitaldiari dagozkionak ere aurkezten dituzte.

Ez da izan 2024 eta 2023ko ekitaldietako urteko kontuen konparazioan eragin esanguratsurik izan dezakeen aldaketa kontablerik.

d) Partidak elkartzea

Ondare garbiko balantzearen, galdu-irabazien kontuko eta egoera-orriaren partida batzuk taldekatuta daude errazago ulertzeko, nahiz eta kasu batzuetan, memoriaren oharretan informazio berezia txertatu den.

e) Kontabilitate-zenbatespenak eta akatsak zuzentzea

Batzuetan, Sozietate Kudeatzailearen Administratzaileek zenbatespenak egin dituzte urteko kontuetan erregistratuta agertzen diren zenbait aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromisoen balorazioa lortzeko. Zenbatespen horiek, batik bat, aktibo finantzario batzuen narriaduragatiko arrazoizko balio eta balizko galerei buruzkoak dira, halakorik balego. Horiek balizko zenbatespen onenentzat jotzen direnean ere, kalkulatzeko unean dagoen informazioan oinarrituta, etorkizuneko gertaerek behartu dezakete horiek prospektiboki aldatzera, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Nolanahi ere, Funtsaren likidazio-balioari merkatuko prezioen fluktuazioek eta inbertsio finantzarioei lotutako beste arrisku batzuek eragin diezaiokete.

Ez dago aldaketarik kontabilitate-zenbatespenetan, eta ez dago aurreko ekitaldietan egin eta 2024 eta 2023ko ekitaldietan detektatu den errorerik ere.

Urteko kontu hauek, balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren egoera-orria eta memoria hau osatzen dituzten dokumentuetako zifrak, eurotan daude, berariaz adierazten ez denean izan ezik.

3. Kontabilitate-printzipio eta balorazio-arau esanguratsuenen laburpena

Urteko kontu hauen formulazioan aplikatutako kontabilitate-printzipio esanguratsuenak hauek izan dira:

a) Enpresa-printzipioa funtzionamenduan

Urteko kontuak egitean, kontuan izan da Funtsaren kudeaketak jarraitu egingo duela aurreikus daitekeen etorkizunean. Beraz kontabilitate-arauen aplikazioa ez dago bideratuta ondare-balioa

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

zehaztera bere transmisio global edo partzialaren ondorioetarako, ezta likidatzen bada lortzen den zenbatekoa zehaztera ere.

b) Sortzapen printzipioa

Diru-sarrerak eta gastuak kontabilitateari dagokionez sortzen diren aldiaren arabera, kontuan izan gabe kobrantza edo eskudirutan egindako ordainketa noiz egin den.

i. Diru-sarrera interes eta dibidenduengatik

Erosteke unearen ondoren sortutako aktibo finantzarioen interesak, halakorik balego, kontabilitatean kontabilizatzen dira bere sortzapen-aldiaren arabera, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz, kobrantzaren unean erregistratzen diren inbertsio berankor, zalantzazko edo auzitan daudenei dagozkien interesak izan ezik. Aktibo finantzarioen zorrotik datozen interesen periodifikatzea balantzeko aktiboko epigrafe honetan erregistratzen da: "Inbertsio finantzarioen zorroa – Inbertsio Zorroaren Interesak". Kontu horren kontrapartida galdu-irabazien kontuko "Sarrera finantzarioak" epigrafean erregistratzen da.

Beste sozietate batzuetako dibidenduak jasotzen direnean, sarrera gisa kontabilizatzen dira, galdu-irabazien kontuko "Sarrera finantzarioak" epigrafean, Funtsak dibidendu horiek kobratzeko eskubidea sortzen den unean.

ii. Komisioak eta pareko kontzeptuak

Zuzenean edo zeharka, lehen jasandako ostera lagatako komisioen ondorioz, Funtsak jasotzen dituen diru-sarrerak, halakorik bada, galdu-irabazien kontuko epigrafe honetan erregistratu dira: "IKEei ostera lagatako komisioak"

Kudeaketa-komisioak, gordailu-komisioak zein Funtsaren bilakaerarako beharrezkoak diren bestelako kudeaketa-gastuak, galdu-irabazien kontuko "Ustiapeneko bestelako gastuak" epigrafean erregistratzen dira, bakoitzaren izaera kontuan hartuta.

iii. Arrazoizko balioaren aldakuntza tresna finantzarioetan

Aktibo eta pasibo finantzarioen arrazoizko balioaren aldakuntzetatik eratorritako etekina edo galera, eginda edo egin gabe, Funtsaren galdu-irabazien kontuko "Narriadura eta emaitzak tresna finantzarioen besterentzeengatik" eta "Arrazoizko balioaren aldakuntza tresna finantzarioetan" epigrafeetan erregistratzen da dagokionaren arabera.

iv. Diru-sarrera eta gastu ez-finantzarioak

Sortzapen-irizpidearen arabera kontabilizatzen dira.

c) Zordunak

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

Hasierako balorazioa bere arrazoizko balioarengatik egiten da, kontrako ebidentziarik ez bada behintzat, transakzioaren prezioa dena eta hori entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren parekoa da gehi zuzenean egotz dakizkion transakzio-kostuak.

Ondorengo balorazioa bere kostua amortizatuari egiten zaio. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Halere, urte batetik epean jasotzea espero diren zenbatekoak dituzten partidak balio nominalaren arabera baloratzen dira.

Kobratzeko partiden balioaren narriaduragatik sortutako galerak kalkulatzeko, etorkizuneko diru-fluxu estimatuak hartzen dira kontuan, kontabilizatzeko unean kalkulaturako interes-tasa efektiboan deskontatuta. Narriaduragatik balorazio-zuzenketak, baita horien berrikuspena ere, gastu edo diru-sarrera gisa jaso dira galdu-irabazien kontuan.

d) Inbertsio finantzarioen zorroa

Inbertsio finantzarioen zorroaren aktiboak galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioan kontabilizatutako aktibo finantzariotzat jo dira. Zorroan jasotako produktu finantzario nagusiak, baita beren arrazoizko balioaren zehaztapena ere, jarraian deskribatu dira:

- Zorraren balore adierazgarriak: jaulkitzailearentzat zor bat diren eta kontratu bidez ezarritako interes batean oinarritzen den ordainsari bat sortzen duten baloreak.

Kotizatutako zorraren balore adierazgarrien arrazoizko balioa merkatu batean kotizazio-prezioek zehazten dute, betiere hori aktiboa bada eta prezioak era irmoan lortzen badira. Arrazoizko balioa kotizatutako prezioak eskura ez daudenean, transakzio-prezio berrienarekin bat egiten da, betiere ez bada izan aldaketa esanguratsurik baldintza ekonomikoetan transakzio unetik.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

Zerga-tresnarentzat merkatu aktiborik ez dagoen kasuan balorazio-teknikak aplikatzen dira: bitartekaritza, jaulkitzaile edo informazio-zabaltzaile bidez hornitutako prezioak, eskura badaude alderdi interesdunen eta behar bezala informatutakoen arteko elkarrikotasun-independentziaren baldintzetan egindako merkatu-transakzio berriak erabiltzea, arrazoizko balioa funtsean berdina den beste tresna baten gaur egungo unean eta aukeren balorazioa, kasua balitz.

Zorraren balore adierazgarrien kobratu gabeko interes sortuak interes-tasa efektiboaren arabera periodifikatzen dira eta ekitaldiko emaitzaren parte dira.

- Ondare-tresnak: beste erakunde batzuek jaulkitako tresna finantzarioak, esaterako, akzio eta kuota partaidetuak, baldin eta jaulkitzailearentzat kapital-tresnen izaera badute.

Ondare kotizatuen tresnen arrazoizko balioa balantze-dataren egunaren itxierako kanbio ofizialak ezartzen du, edo egun horren aurreko egun baliodunak edo ponderatutako batezbesteko kanbioak itxierako prezio ofizialik ez balego.

- Kreditu-erakundeetako gordailuak: Funtsak kreditu-erakundeetan mantentzen dituen gordailuak, salbu "Diruzaintza" epigrafean jasotzen diren saldoak.

Arrazoizko balioetat jotzen da inbertsioaren barne-errendimendua une bakoitzean indarrean dauden merkatuko interes-tasekin parekatzen duen prezioa.

- Inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuen akzioak edo partaidetzak: beren arrazoizko balioa erreferentziako egunaren likidazio-balioaren edo kotizazio-balioaren arabera ezartzen da. Erreferentzia-egunerako ez bada likidazio-balio bat kalkulatzeko, eskura dagoen azken likidazio-balioa erabiltzen da. Inbertsio Libreko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan, Inbertsio Libreko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan eta atzerriko antzerako Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan egindako inbertsioak direnean, likidazio-balio estimatuak erabiltzen dira.
- Deribatuetak: besteak beste, barnean hartzen ditu balio-diferentziak geroko eta forward-en kontratuetan, warrants-engatik ordaindu/kobratutako primak eta ordaindu/jaulkitako opzioak, truke-kontratuei lotutako kobrantzak edo ordainketak, baita produktu egituratuetako inbertsioak ere.

Erreferentzia-eguneko itxierako kanbio-balio ofizialak bere arrazoizko balioa zehazten du. Merkatu antolatuetako negoziatu gabeentzat, Sozietate Kudeatzaileak balorazio-eredu bat ezartzen du CNMVren abenduaren 21eko 6/2010 Zirkularrean eta ondoren aldaketetan ezarritako baldintza espezifikoaren arabera, eragiketen gain Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan tresna deribatuekin.

Inbertsioaren narriadura nabarmen eta berreskurazekin bat duten aktiboetako emango zaie galdu-irabazien kontura.

Aktibo eta pasibo finantzarioei balantzean baja ematen zaie, haien jabetzari lotutako arrisku eta onura guztiak funtsean transferitzen direnean.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

Aktiboen behin-behineko eskuratzeak edo osterako hitzarmena duten eskuratzeak despoltsatutako zenbateko efektiboaren arabera kontabilizatzen dira, edozein izanda ere azpiko tresnak, dagokion aktiboaren kontuan.

Zenbateko honen eta osterako prezioaren arteko diferentzia diru-sarrera gisa esleitzen da galdu-irabazien kontuan, interes-tasa efektiboaren metodoa erabilita.

Arrazoizko balioaren diferentziak galdu-irabazien kontuan inputatzen dira, "Arrazoizko balioaren aldakuntza tresna finantzarioetan" epigrafean.

Aldi baterako eskuratutako aktiboaren lagapen irmoa erregistratu da emaitza-kontuaren bidez arrazoizko balioan kontabilizatutako pasibo finantzario gisa.

f) Ondare-tresnak

Kotizatutako ondare-tresnak beren kontratazio-unean erregistratzen dira entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera, eragiketari zuzenean esleitu dakizkiokeen transakzio esplizituaren kostuak barne.

Aktibo hauen arrazoizko balioko aldaketen ondorio gisa sortzen diren diferentziak galdu-irabazien kontuan adierazten dira honela: diferentzia negatiboak edo diferentzia positiboak epigrafe honetan "Narriadura eta emaitzak tresna finantzarioen besterentzeengatik" edo "Tresna finantzarioen arrazoizko balioaren aldakuntza barneko edo kanpoko zorroko eragiketengatik" epigrafean erregistratzen dira, likidatu diren edo ez diren aldaketen arabera, eta kontrapartida gisa erabiltzen da balantze-aktiboaren barneko edo kanpoko zorroaren "Ondare-tresnak" kontua.

g) Zorraren balore adierazgarriak

Zorraren balore adierazgarriak likidazio-unean erregistratzen dira entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera, eragiketari zuzenean esleitu dakizkiokeen transakzio esplizituaren kostuak barne.

Aktibo hauen arrazoizko balioko aldaketen ondorio gisa sortzen diren diferentziak galdu-irabazien kontuan adierazten dira honela: diferentzia negatiboak edo diferentzia positiboak epigrafe honetan "Narriadura eta emaitzak tresna finantzarioen besterentzeengatik" edo "Tresna finantzarioen arrazoizko balioaren aldakuntza barneko edo kanpoko zorroko eragiketengatik" epigrafean erregistratzen dira, likidatu diren edo ez diren aktiboen arabera, eta kontrapartida gisa erabiltzen da balantze-aktiboaren barneko edo kanpoko zorroaren "Zorraren balore adierazgarri" kontua.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

h) Deribatuen eragiketak

Deribatuen eragiketak kontratatzen diren unean erregistratzen dira, eta posizioa itxi arte edo kontratuaren muga-egunera arte edukitzen dira, oroipen-kontuetan dagokien epigrafean, konprometitutako zenbateko nominallean.

Garantia gisa gordailututako funtsak, lagatako gordailutzat hartzen dira kontabilitatean eta balantzeko aktiboan erregistratzen dira, "Zordunak" epigrafean dagokien kapituluan.

Garantian emandako baloreen arrazoizko balioa "Inbertsio Kolektiboko Erakundeak garantia gisa emandako Baloreak" epigrafean erregistratzen da.

Erositako edo jaulkitako opzioetatik lortutako primak balantzearen aktibo edo pasiboaren "Deribatuak" epigrafean adierazten dira, eragiketaren gauzatze-datan.

Truke finantzarioaren kontratu bakoitzari lotutako kobrantzen edo ordainketen kontrapartida balantzearen aktibo edo pasibo korrontzearen barneko edo kanpoko zorroko "Deribatuak" epigrafean erregistratzen da, dagokionaren arabera.

Aktibo hauen arrazoizko balioko aldaketen ondorio gisa sortzen diren diferentziak galdu-irabazien kontuan adierazten dira honela: diferentzia negatiboak edo diferentzia positiboak epigrafe honetan "Emaitzak deribatuekin egindako eragiketengatik" edo "Tresna finantzarioen arrazoizko balioaren aldakuntza deribatuekin egindako eragiketengatik" epigrafean erregistratzen dira, likidatu diren edo ez diren aktiboen arabera, eta kontrapartida gisa erabiltzen da balantze-aktiboaren barneko edo kanpoko zorroaren "Deribatuak" kontua.

2024ko eta 2023ko abenduaren 31n, zorroan ez dago deribatuen eragiketarik.

i) Konpromiso-kontuak

CNMVren abenduaren 21eko 6/2010 Zirkularrak, Inbertsio Kolektiboko Erakundeek tresna deribatuekin egindako eragiketei buruzkoak, xedatzen duen bezala, sozietateak ez badu egin inbertitzen duen Inbertsio Kolektiboko Erakundeen deskonposizioa, erreferentziatuta dagoen esposizioen arabera, Zirkular horretako 6.5 arauan ezarritakoaren arabera, posizio horiek azpikotzat edo gainerakoekiko independentea den arrisku-faktoretzat hartu behar ditu. Horregatik, Sozietateak posizio horiek "konpromiso-kontuak" epigrafean sartzen ditu, besteak beste, betiere Sozietateak horri buruzko informazioa badu.

j) Atzerriko dirua

Diruzaintza, zor eta kredituak diren diru-partiden kasuan, kanbio-diferentziak, positiboak zein negatiboak, galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, "Kanbio-diferentziak" epigrafean.

Tresna finantzarioen zorroa osatzen duten gainerako diru-partidak eta diruzkoak ez diren partidak, baloraziotik eratorritako galdu-irabaziekin batera tratatzen dira kanbio-diferentziak.

k) Partaidetzen likidazio-balioa

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

Funtsaren ondarea zehaztuko da funtsa osatzen duten partaidetzei dagozkien likidazio-balioa kalkulatzeko ondorioetarako, CNMVren azaroaren 26ko 6/2008 Zirkularrean, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen likidazio-balioa eta alderdi operatiboak zehazteari buruzkoan, eta ondorengo aldaketetan ezarritako irizpideekin bat.

l) Harpidetzak eta errenboltsoak

Partaidetzen harpidetzak eta errenboltsoak, benetan harpidetutako edo errenboltsatutako zenbatekoan kontabilizatzen dira, FUNTSAREN BALANTZEAREN PASIBOKO "PARTAIDEAK" kapituluan abonatuz edo kargatuz, hurrenez hurren.

Funtsaren Kudeaketa Erregelamenduaren arabera, partaidetzen prezioa interesdunaren eskaera-egun berdineko likidazio-balioa izango da; horrela, harpidetutako edo ordaindutako partaidetzen kopurua nola, halakorik balitz, ordaindu beharreko eskudirua zehaztuko da. Partaidetzen prezioaren eskaeraren eta zehaztapenaren arteko batez besteko iraupenean zehar, eskatutako zenbatekoa FUNTSAREN BALANTZE PASIBOAREN KAPITULU HONETAN ERREGISTRATZEN DA: "HARPIDETZA-ESKAERAK, ORAINDIK PARTAIDETZAK ESLEITU GABEAK".

m) Mozkinen gaineko zerga

Galdu-irabazien kontuan jasotzen da etekinen gaineko zergaren gastua, bere kalkuluan jasotzen da, ondorengo aldirako den zerga aplikatu aurretik, zergaren zerga-oinarriaren eta kontabilitate-emaitzaren artean sortutako diferentzien geroratzearen efektua.

Geroratutako zergengatik pasiboak beti adierazten dira; aldiz, zerga geroratuengatik aktiboak soilik adierazten dira baldin eta probablea bada erakundeak aktibo hauek aplikatu ahal izateko etorkizuneko etekin fiskalak baditu.

Galera fiskalengatik ondorengo ekitaldietan konpentsatu beharreko eskubideak ez du aukera ematen inolako kasutan zerga geroratuagatik aktibo bat adierazteko eta soilik adierazten dira zergagatik gastua konpentsatuta, likidazio-balioaren kalkulu-maiztasunarekin. Konpentsa daitezkeen galera fiskalak "Oroipen-kontuak - Konpentsatu beharreko galera fiskalak" epigrafean erregistratzen dira.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

4. Hartzekodunak

Hartzekodunen banakatzea, 2024 eta 2023ko abenduaren 31n, hau da:

	2024	2023
Administrazio Publikoak, hartzekodun	1 360,28	1 250,01
Bestelakoak	<u>5 614,02</u>	<u>4 722,83</u>
	<u>6 974,30</u>	<u>5 972,84</u>

“Administrazio Publikoak, hartzekodun” kapituluaren banakatzea hau da:

	2024	2023
Mozkinen gaineko zerga	<u>1 360,28</u>	<u>1 250,01</u>
	<u>1 360,28</u>	<u>1 250,01</u>

“Hartzekodunak - Bestelakoak” kapituluan jasotzen da, batez ere, 2024 eta 2023ko abenduaren 31n, dagokion ekitaldi-itxieran ordaintzeko zeuden kudeaketa- eta gordailuzain-komisioen zenbatekoak.

2024 eta 2023ko ekitaldietan zehar, Funtsak ez du egin legeak ezarritakoa baino geroratze handiagoa metatuta zuen ordainketarik. Era berean, 2024 eta 2023ko ekitaldien itxieran Funtsak ez dauka legeak ezarritako epea baino geroratze luzeagoa metatuta duen ordaintzeko saldirik.

5. Inbertsio finantzarioen zorroa

Jarraian azaltzen da xehetasunez, 2024 eta 2023ko abenduaren 31n, Funtsaren inbertsio finantzarioen zorroaren osaera.

	2024	2023
Barneko zorroa	<u>26 235 480,12</u>	<u>26 105 900,60</u>
Zorren balore adierazgarriak	26 235 480,12	26 105 900,60
Inbertsio-zorroaren interesak	<u>417 484,97</u>	<u>355 452,36</u>
	<u>26 652 965,09</u>	<u>26 461 352,96</u>

Memoria honi erantsitako eta beronen zati diren I. eta II. Eranskinetan xehetasunez azaltzen da Funtsaren inbertsio finantzarioen zorroa 2024 eta 2023ko abenduaren 31n, hurrenez hurren.

2024 eta 2023ko abenduaren 31n, inbertsio finantzarioen zorroan jasotako titulu guztiak Cecabank, S.A.n gordailututa daude.

6. Diruzaintza

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

Jarraian azaltzen dira epigrafe honen xehetasunak 2024 eta 2023ko abenduaren 31n:

	2024	2023
Gordailuzaineko kontuak		
Kontuak eurotan	347 743,03	387 233,82
Diruzaintzaz bestelako erakundeetako kontuak		
Kontuak eurotan	0,01	-
	347 743,04	387 233,82

2024 eta 2023ko ekitaldietan, Cecabank, S.A.ren, gordailuzainaren, Kutxabank S.A.ren eta Cajasur, S.A.ren kontuei aplikatutako interes-tasa hau izan da: €STR.

"Diruzaintzaz bestelako erakundeetako kontuak" epigrafean, Kutxabank taldeko Kutxabank S.A. eta Cajasur S.A. sozietateetako kontu korranteetako saldoak daude. Saldo horiek banatzaileen kontuetan egiten diren harpidetzen eta errenboltsoen eragiketetatik eratortzen dira, nahiz eta egunero banatzaileen kontuen eta gordailuzainaren kontuen artean eskudiru-fluxua dagoen saldo horiek minimizatzeke.

7. Partaideei esleitutako ondarea

Partaideei egotzitako ondareak 2024 eta 2023ko ekitaldietan izandako mugimenduak ekitaldi bakoitzari dagokion Ondare garbiaren aldaketen egoera-orrian jasotzen dira.

Funtsaren ondarea osatzen duten partaidetzak ezaugarri berdinekoak dira, balio nominalik ez duten baina jabeari ondare horren gaineko jabetza-eskubidea ematen dioten ziurtagiri izendunen bidez adieraziak.

Honela kalkulatu da partaidetzen 2024 eta 2023ko abenduaren 31n zuen likidazio-balioa:

	2024	2023
Partaideei esleitutako ondarea	26 993 733,83	26 842 613,94
Partaidetzen kopurua	4 501 359,79	4 607 812,45
Likidazio-balioa partaidetzen arabera	6,00	5,83
Partaide-kopurua	715	714

Ekitaldiko emaitza, Mozkinen gaineko zerga kontuan hartu ondoren, Funtsaren "Partaideak" kontuan banatuko da.

1082/2012 Errege Dekretuaren 31. artikulua arabera, partaidetza esanguratsutzat jotzen da Funtsaren partaideei esleitutako Ondarearen % 20 gainditzen duena.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

2024ko eta 2023ko ekitaldien amaieran, ez zegoen Funtseko partaideei esleitutako Ondarean partaidetza esanguratsurik izan zuen partaidetik.

8. Bestelako oroipen-kontuak

2024 eta 2023ko abenduaren 31n, honela banatzen da epigrafea:

	2024	2023
Konpentsatu beharreko galera fiskalak	1 841 459,63	2 230 312,44
Bestelakoak	<u>26 850 000,00</u>	<u>27 450 000,00</u>
	<u>28 691 459,63</u>	<u>29 680 312,44</u>

9. Administrazio publikoak eta egoera fiskala

2024 eta 2023ko ekitaldian zehar, Funtsearen erregimen fiskala Bizkaiko Foru Diputazioaren 11/2013 Foru Arauak, abenduaren 5ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko zergari buruzkoak, arautzen du. Sozietateen gaineko zergarengatik 100eko 1eko karga-tasa ordaindu behar da, baldin eta 35/2003 Legearen (gero egindako aldaketak kontuan hartuta) bosgarren artikuluko 4. apartatuan aurreikusitako partaide-kopuru minimoa betetzen badu, aipatutako Foru Arauak hirurogeita hemezortzigarren artikuluko bigarren apartatuko a) letran ezarritakoaren arabera.

Gainera, 11/2013 Foru Arauaren aipatutako aldaketetan oinarrituta, ekitaldian aplikatu beharreko zerga-oinarrien konpentsazioa baldin eta aurreko ekitaldietatik datozen likidazio edo autolikidazioaren xede izan badira, gehienez, konpentsazio horren aurreko zerga-oinarri positiboaren % 50 izango da. Muga % 70ekoa izango da Foru Arau honen 13. artikuluan zehaztutako mikroenpresa eta enpresa txikientzat.

Aurreko ekitaldietan sortutako zerga-oinarri negatiboak, "Konpentsatu beharreko Galera Fiskalak" epigrafean jasotakoak, oso-osorik kenduko dira ekitaldiko zergen aurreko kontabilitate-emaiztatik, mozkinen gaineko zergaren aitortpena aurkezten den unean, indarrean dagoen araudian ezarritako muga arabera.

Ekitaldian sortutako mozkinen gaineko zerga; batez ere, aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboak osorik kendu ondoren zergen aurreko kontabilitate-emaiztari % 1 aplikatuta lortzen dena, indarrean dagoen araudian ezarritako muga arabera.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

Zerga aurreko kontabilitate-emaitzaren eta Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarriaren arteko diferentziak, 2024 eta 2023ko abenduaren 31n, 2024 eta 2023ko aurreko ekitaldietan sortutako zerga-oinarri negatiboak, 388.852,81 euroko eta 353.619,67 euroko zenbatekoa, hurrenez hurren, konpentsatzeari dagokio.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Funtsean deklaratu behar diren zerga desberdinak ezin dira behin betikotzat jo agintari fiskalek ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio-epea pasatu arte.

Funtsak ikuskatzeko irekita dauzka azken lau ekitaldietako zerga guztiak.

Ez dago agintaritza fiskalek egindako berrikuspen batetik erator daitekeen kontingentzia esanguratsurik.

10. Bestelako informazioa

Sozietate Kudeatzaileak 35/2003 Legearen 67. artikuluan eta 1082/2012 Errege Dekretuaren 139. artikuluan –eta ondorengo aldaketetan– aurreikusten diren loturadun eragiketak egiten ditu Funtsaren kontura. Horretarako, Sozietate Kudeatzaileak interes-gatazkak saihesteko prozedurak hartu ditu bere gain eta ziurtatzen du eragiketa lotuak Funtsaren interes eskusiborako egiten direla eta merkatuaren prezioetan. Aldizkako txostenek, CNMVren 4/2008 Zirkularrean ezarritakoaren eta ondorengo aldaketek ezarritakoaren arabera, egindako eragiketa lotuei buruzko informazioa jasotzen dute. Era berean, Funtsaren kontura Sozietate Kudeatzailearekin edo Sozietate Kudeatzaileari lotutako pertsona edo entitateekin egindako loturadun eragiketa posibleak sartzen dira, horien izaera, eta eragiketetan hartutako arriskuak eta funtzioak adieraziz.

Gainera, "Jarduera eta arrisku-kudeaketa" oharrean adierazten da Sozietate Kudeatzailearen Taldeko erakundeek kudeatutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan jatorria duten ostera lagatzeko komisioen zenbatekoa, ekitaldian zehar sortu izan balitz.

Gordailuzainarekin egiten dituen eragiketei dagokienez, "Diruzaintza" oharrean adierazten da Funtsak Gordailuzainarekin dauzkan kontuak 2024 eta 2023ko abenduaren 31n.

Entitateak, dituen ezaugarriengatik, ez du langilerik ezta bulegorik ere eta, duen izaerarengatik, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Sozietate Kudeatzaile batek kudeatu behar du; horregatik, ingurumena babesteari eta langileen segurtasun eta osasunari buruzko gaiak Sozietate Kudeatzaile horri bakarrik dagozkio.

Auditoretza-sozietateak 2024 eta 2014ko urteko kontuen auditoria-zerbitzuengatik kobratutako zerbitzu-sariak 3 eta 2 mila eurokoak dira, hurrenez hurren; eta aipatutako enpresak ez du beste zerbitzurik eman ekitaldian. Auditoretza-sozietatearen inguruneke beste erakunderik ez dio eman beste zerbitzurik Funtsari aipatutako ekitaldietan.

11. Ondorengo gertaerak

2024ko abenduaren 31n ekitaldia itxi zenetik urteko kontuen formulazio egunera arte, ez da izan memoria honetan sartzeko moduko garrantzi bereziko gertaerarik.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

I. Eranskina. Inbertsio finantzarioen zorroa 2024ko abenduaren 31n (eurotan adierazita)

Barneko zorroa	Dibisa	Hasierako balorazioa	Interesak	Arrazoizko balioa	(Minusbalioa) /Gainbalioa	ISIN
Zor publikoa						
BONUA ESPAINIA ESTATUA 0,37 2025-04-30	EUR	24 459 025,00	510 580,96	24 278 669,04	(180 355,96)	ES00000127E4
BONUA ESPAINIA ESTATUA 1,60 2025-04-30	EUR	1 970 063,15	(93 095,99)	1 956 811,08	(13 252,07)	ES00000126Z1
Zor publikoa GUZTIRA		26 429 088,15	417 484,97	26 235 480,12	(193 608,03)	
Barneko Zorroa GUZTIRA		26 429 088,15	417 484,97	26 235 480,12	(193 608,03)	

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

II. Eranskina. Inbertsio finantzarioen zorroa 2023ko abenduaren 31n

(eurotan adierazita)

Barneko zorroa	Dibisa	Hasierako balorazioa	Interesak	Arrazoizko balioa	(Minusbalioa) /Gainbalioa	ISIN
Zor publikoa						
BONUA ESPAINIA ESTATUA 0,37 2025-04-30	EUR	25 046 041,60	427 087,19	24 197 168,81	(848 872,79)	ES00000127E4
BONUA ESPAINIA ESTATUA 1,60 2025-04-30	EUR	1 970 063,15	(71 634,83)	1 908 731,79	(61 331,36)	ES00000126Z1
Zor publikoa GUZTIRA		27 016 104,75	355 452,36	26 105 900,60	(910 204,15)	
Barneko Zorroa GUZTIRA		27 016 104,75	355 452,36	26 105 900,60	(910 204,15)	

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren kudeaketa-txostena

Negozioaren eta jarduera nagusien azalpen fidela

Faktore ekonomiko erabakigarriak

2024. urtearen zati handi bat ziurgabetasunak baldintzatu ditu ingurune makroekonomikoa eta banku zentralen jarduketak. Alde horretatik, inflazioak bizkortu egin du bere bide zuzentzailea, protagonismoa galdu du eta bigarren mailara igaro da moneta-agintarien diskurtsoetan, nahiz eta ekitaldiaren hasieran deskontatutakoa baino iraunkorragoa izan. Testuinguru horretan, banku zentralak moneta-politika aldatu dute, interes-tasetan hainbat murrizketa eginez eta datozen hilabeteetan beheranzko mugimendu berriak aurreratuz. Hala ere, Trumpen hauteskunde-garaipenak eta balizko politika ekonomikoek (tarifak, zerga jaitsierak, etab.) zalantzak sortu dituzte urtearen amaieran, inflazioaren bilakaerari eta banku zentralen, batik bat FEDen, etorkizuneko jardueri dagokienez. Europan, bestalde, ekonomiak ez du gora egin, ahulezia makroekonomiko globalak eraginda, nahiz eta enplegu tasek maila osasuntsuan jarraitzen duten oraingoz. Gainera, Frantziako ezegonkortasun politikoak eta Alemaniako hauteskundeak aurreratzeak ziurgabetasun garai berri bat ireki dute kontinente zaharrean. Bitartean, Txinan, ekonomiak ahulezia-zantzuak erakusten jarraitzen du, eta iragarritako hedapen ekonomikoko neurriak ez dira, antza, agindutako hazkunde ekonomikoko helburuak lortzeko bezain sendoak. Bestalde, abian diren gatazka geopolitikoek (Ekialde Ertaina, Ukraina) ez dute inolako eraginik izan finantza aktiboan portaeran.

Finantza-merkatuei dagokienez, 2024an inflazioa moteldu egin da pixkanaka, eta errenta aldakorreko merkatuei mesede egin dien interes-tasen jaitsiera ziklo bat izan da. Testuinguru horretan, burtsako indize nagusiek igoera handiekin amaitu dute ekitaldia (S&P 500 +% 23,31, Eurostoxx 50 +% 8,28, Ibex 35 +% 14,78, Nikkei 225 +% 19,22, MSCI Emerging +% 5,05).

Errenta finkoari dagokionez, banku zentralak tasak jaisten hasteak interes-tipoen kurben maldak nabarmen areagotzea eragin du, murrizketa handiekin tarterik laburren eta interes-tasen igoerekin luzeenetan. Horrela, AEBn zor publikoaren 10 urterako errentagarritasuna 69 op igo da; aldiz, Alemanian, erreferentzia berdina 34 op igo da. Tarterik laburren, errentagarritasunen jaitsiera orokorra izan da, batez ere, urte batetik beherako epeetan. Horrela, murrizketak ikusi ditugu AEBn 2 urterako tartean (1 op); aldiz, Alemanian, erreferentzia hori 32 op zuzendu da. Arrisku aktiboek, ordea, urte hegakorra izan dute, zor korporatiboan diferentzialen hedapen moderatua izan da (3 op Xover indizearen kasuan) eta zor emergentean (18 op). Azkenik, dibisetan, ekonomia amerikarraren erresilientzia handiagoak eta interes-tasen murrizketa-prozesuan FEDEk oldarkortasun txikiagoa eduki izanak dolarrari mesede egin dio euroaren (+ 6,21) eta yenaren (+% 11,46) aldean.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren kudeaketa-txostena

2025erako aurreikuspenak

1. Koiuntura ekonomiko globala

2024an hazkunde ekonomikoak moteltze-prozesuan murgilduta egon dira ekonomia garatu askotan, baina 2025ean espero dugu susperraldi moderatuak izatea, 2024an gehien zigortutako ekonomietako batzuetan. Horrela, munduko hazkunde agregatuan egonkortasunaren alde egin dugu. Hala ere, herrialde garatuek eta emergenteek berriz ere bilakaera desberdina izango dutela uste dugu. Lehenengo kasuan, hazkunde aurreikuspenak askoz txikiagoak dira; bigarrenen kasuan, egoera hobea da Indiaren erresilientzia ekonomikoari esker. Oro har, espero dugu AEBren eta Txinaren hazkundera moderazio txikia izatea, eta euroguneko, Erresuma Batuko eta Japoniako ekonomiak era moderatuan suspertzea. Hori guztia ziurgabetasun handiko ingurunean, Trumpen muga-zergen politika potentzialek eraginda, munduko hazkundera eragin negatiboa izan dezaketelako.

	2024	2025	2026
Crecimiento mundial	3,2%	3,3%	3,3%
Economías avanzadas	1,2%	1,9%	1,8%
EEUU	2,8%	2,7%	2,1%
Eurozona	0,8%	1,0%	1,4%
Alemania	-0,2%	0,3%	1,1%
Francia	1,1%	0,8%	1,1%
Italia	0,6%	0,7%	0,9%
España	3,1%	2,3%	1,8%
Reino Unido	0,9%	1,6%	1,5%
Japón	-0,2%	1,1%	0,8%
Economías Emergentes	4,2%	4,2%	4,3%
Rusia	3,8%	1,4%	1,2%
China	4,8%	4,6%	4,5%
India	6,5%	6,5%	6,5%
Brasil	3,7%	2,2%	2,2%
México	1,8%	1,4%	2,0%

2. Merkatuen bilakaera

2025eko merkatuetako egoera orokorra zalantzazkoa izango dela uste da, aurreko ekitaldian arrisku-aktiboek portaera ona izan dutelako eta Trumpen politikek maila globalean sortzen duen ziurgabetasuna dela eta. Testuinguru honetan, aktibo hauen balizko errebalorizazioa moderatua izango dela uste de 2025era begira.

Interes-tasen kurbei dagokienez, espero izatekoa da horien tarte guztietan interes-tasen jaitsieren mugimendu berriak, batik bat laburretan, banku zentralak 2024an hasitako moneta-politika murriztzaileen itzulketarekin jarraitzen duten neurrian. Diferentzial subiranoei eta kreditu diferentzialei dagokienez, litekeena da nolabaiteko egonkortasuna ikustea gaur egungo mailen inguruan eta, nolahi ere, ezin dugu baztertu handitzeak ikustea, baldin eta tentsio geopolitiko edo inflazio handiagoko gertaerak izaten badira.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren kudeaketa-txostena

Errenta aldakorrak, bestalde, hegazkortasun-gertakari garrantzitsuak izan ditzake egungo ziurgabetasun-fokuak mantentzen badira. 2024ko burtsaren portaera bikainaren ondoren, balorazioek, oro har, doitua eta merkatu-nitxo batzuetan handiak dirudite. Adierazle makroekonomikoen bilakaera eta banku zentralen jarduerak izango dira berriz ere merkatuen bilakaera baldintzatuko duten alderdi nagusiak. Bestalde, hurrengo hiruhilekoetako enpresa-emaitzen espektatibek exigenteak izaten jarraitzen dute eta litekeena da ez zuzen islatzea gaur egungo hazkunde makroekonomiko moderatuaren eta ziurgabetasun handiaren testuingurua. Beraz, ezin dugu baztertu ezusteko negatiboak izatea, bereziki sektore ziklikoago batzuetan.

2025eko egoera, beraz, ziurgabetasun handikoa izango da eta, kasu batzuetan, arrisku-aktiboak maximo historikoetan egongo dira. Inflazioaren bilakaerak eta banku zentralen jarduketak izango dira berriz ere arreta osoaren ardatzak. Gainera, Trumpen politika ekonomikoen agresibitatea (tarifak, zerga-jaitsierak) ezezaguna da, eta jarduketa horiei eragin diezaiekete. Hala ere, hazkunde ekonomiko moderatuak eta inflazio-tasak beherantz ikustea espero dugu, moneta-agintariak hasitako tasa jaitsieren bidearekin jarraitzeko aukera izan dezaten. Banku zentralen diru-politiken itzulera mugatuko duen inflazio-egoera iraunkoragoak hazkunde-zenbatespenen narriadura nabarmena eragin lezake, eta oso eragin negatiboa izan dezake arrisku-aktiboen balorazioetan.

Tresna finantzarioen erabilera

Sozietateak, bere jarduera dela eta, tresna finantzarioak erabiltzen ditu, erantsitako memorian deskribatzen den bezala, sozietatearen helburu soziala lortzeko, eta merkatuko, kredituko eta likideziako arriskuak kudeatzeko helburuak eta politikak doitzen ditu, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak eta Lege hori arautzen duen uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuak garatutako eta ondorengo aldaketek, bai eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak emandako zirkularrek ere ezarritako muga eta koefizienteen arabera.

Gainerako produktu finantzario honen azpiko inbertsioek ez dituzte kontuan hartzen ingurumenaren aldetik jasagarriak diren jarduera ekonomikoetarako EBren irizpideak.

I+Gren eta ingurumenaren gastuak

2024ko ekitaldian zehar ez da izan jarduerarik ikerketa eta garapenean.

Funtsaren 2024ko ekitaldiaren urteko kontuei dagokien kontabilitatean ez dago partidari ingurumenen-informazioari buruzko aparteko dokumentuan jaso behar denik.

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epealdia

2024ko ekitaldietan zehar, Funtsak ez du egin memorian deskribatutakoez bestelako eta legeak ezarritakoa baino geroratzeko handiagoa metatuta zuen ordaintzarik. Era berean, 2024ko ekitaldiaren itxieran Funtsak ez dauka legeak ezarritako epea baino geroratzeko luzeagoa metatuta duen ordaintzeko saldirik.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

2024ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren kudeaketa-txostena

Akzio propioak

Funtsari ez dio aplikatzen akzio propioei dagokiena.

2024ko abenduaren 31ko itxieraren ondorengo gertaerak

2024ko abenduaren 31n ekitaldia itxi zenetik kudeaketa-txostena honetara arte, ez da izan memoria honetan adierazi ez den garrantzi bereziko gertaerarik.

Kutxabank RF Horizonte 10, Fondo de Inversión

Urteko kontuen eta kudeaketa-txostenaren formulazioa
